

Bizikidetzaren eredu berriak gorabidean, familia-politika berriak bilatu beharko Euskal Herriarentzat

> INEk Hego Euskal Herriko bizikidetzaren unitateei buruz argitaratu berri dituen datuen arabera 1.298.500 bizikidetzaren unitate daude Euskal Herri osoan. Aspalditik tamaina txikiko bizikidetzaren unitateak gero eta ugariagoak dira, familia-eredu mediterraneoaren ezaugarriak gero eta lausoagoak, eta Euskal Herriak Europar Batasunaren antz handiagoa dauka. Dagoeneko, Euskal Herrian gehienez bi pertsonen osaturiko bizikidetzaren unitateak guztien %60,5a dira.

> Azken datuen arabera, Euskal Herriko bizikidetzaren unitateen %28,6a kide bakarrekoak dira, eta beste %31,9a, bi kidekoak. Hiru eta lau kidez osaturiko unitateak, aldiz, bizikidetzaren unitate guztien %19,3 eta %16,0a dira, hurrenez hurren. Familiaren tamaina txikitzearen joeraren hastapena Espainiar erresumako Gerra Zibiletik eta bigarren mundu gerratik dator, eta indartu egin zen 1960 eta 1970eko hamarkadetakoa Hego Euskal Herriko industrializazio prozesuarekin batera. Bilakaera horren tokian tokiko egungo errealitateek, gutxienez bi kasuistakari erantzuten diote. Ipar Euskal Herrian ongi baino hobeto adierazten dira kasuistika horiek: Lapurdin, bizikidetzaren unitateen egiturak gero eta txikiagoak dira, landa eremuan erroturiko bizimoduaren kaltetan hiriguneetan sustraituriko bizi-ereduak nagusitzen joan diren heinean. Zuberoan, aldiz, landa eremuaren nortasunari eusteko egiturazko zailtasunen ondorioz tamaina txikiko bizikidetzaren unitateak gorabidean daude. Hain zuzen ere, Euskal Herrian Lapurdi eta Zuberoa dira kide bateko edo bi kideko bizikidetzaren unitateen presentzia handiena duten herrialdeak (%73,5 eta %69,1, hurrenez hurren).


> Azken urteotan, gero eta ugariagoak dira guraso bakarreko familiak eta pertsona bakarreko bizikidetzaren unitateak. Horrela, Euskal Herrian dagoeneko 133.500 dira guraso bakarreko familiak (bizikidetzaren unitateen %10,3), eta 368.000 pertsona dira, aldiz, bakardade egoeran bizi direnak (bizikidetzaren unitateen %28,4). 2013/17 epealdiko joerari so, urtetik urtera guraso bakarreko 5.100 familia gehiago eta bakardade egoeran bizi diren beste 5.400 pertsona gehiago daude, batz bestez. Gainontzeko bizikidetzaren eredu gehienak gainbeheran daude, batez ere, seme-alabaren bikotearen tipologiakoak.

> Euskal Herrian bakardade egoeran bizi diren 152.500 biztanlek 65 urte edo gehiago dituzte. Hau da, 65 urtetik gorakoek %23,5a bakardade egoeran bizi da. Horien hiru laurdena emakumeak dira (%74,1). Bakardade egoeran bizi diren adinekoen proportzioa ez da handia Europar Batasunarekin alderatuta (%32,2). Danimarkak (%44,4), Suediak (%39,2), Finlandiak (%39,1) edo Frantziak (%36,1) aise gainditzen dute euskal marka. Izan ere, Euskal Herrian adinekoen artean indar handia daukate bikotearen zaintzaz arduratzen diren bizikideekin ala seme-alaba batekin bizi diren aukerak. Hego Euskal Herrian, esaterako, adinekoen %15,9a bikoterik gabe bizi da seme-alabaren batekin edo balizko zaintza lanetaz arduratzen den pertsona batekin edo gehiagorekin.


> Euskal gizartearen zahartze maila handia da egun, biztanleriaren %24,1ak 65 urte edo gehiago ditu. Europar Italiak eta Greziak baino ez dute gainditzen proportzio hori. Bakardade egoeran bizi diren adinekoen kopurua Euskal Herrian orain arte ezagutu den handiena da, baina adinekoen zaintzaren muina nagusiki familia edo ondoko pertsonen (soldatapean ala gertutasunagatik) ardurapean ari da, Hego Euskal Herrian nabarmen.

> Bizikidetzaren eredu berriak eta biztanleriaren zahartze maila handia komunitate zaugarrien profilak eta beharrak eraldatzen ari dira Euskal Herrian, eta norabide horretan, familia-politiken berregokitzapena premien atzetik doa. Guraso bakarreko familien, bakardade egoeran diren adinekoen, adinekoen zaintzarako zailtasunak izan ditzaketen familien, edo etorkin berrien (etxeguneetan masifikatzeko joera nabarmen batekin) ahuldade eta beharrei so egitea datozen hamarkadetakoa erronka da euskal gizartearentzat. Berrikuntza teknologikoa eta soziala bidelagun, Europa iparraldean badago non begiratu.


BIZIKIDETZA-UNITATEAK, TAMAINAREN ARABERA (%). EUSKAL HERRIA, 2017.



BIZIKIDETZA-UNITATEAK, MOTAREN ARABERA (%). EUSKAL HERRIA, 2017.



BAKARDADE EGOERAN BIZI DIREN ADINEKOAK (% ADINEKO). EUSKAL HERRIA, 2017.




Oharra: Ipar Euskal Herriko datuak 2014 urteari dagozkio.
Iturria: INE, INSEE eta GAINDEGIA.

EUSKAL HERRIA eta EUROPA, 2017

BAKARDADE EGOERAN BIZI DIREN ADINEKOAK (%).

ZAHARTZE TASA



Oharra: Europako estatuen datuak 2016 urterari dagozkie.
Iturria: EUROSTAT, INE, INSEE eta GAINDEGIA.